



11.09.02AN UDALBATZAK EGINIKO EZOHIKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK:

Ramón Ajuria Uranga jauna
Lierni Altuna Ugarte andrea
Ane Miren Echebarria Mendizabal andrea

José Ramón Uribe Uriarte jauna

Iñaki Nafarrate Kortabarría jauna

EZIN ETORRI AZALDU DUTE:

Martín Damián Echave Echevarría jauna

Idoia Beitia Izurrategi andrea
Andoni Solupe Amozarrain
Miren Edurne Uribarren-Iturrieta Larrañaga andrea

**Ekonomi Arloko Udal Teknikaria ere deitua izan da bilkura honetara, bertan azaldu delarik*

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, bi mila eta hamaikako irailaren 2an, eguerdiko ordu bata (13:00) denean, goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira, Ramón Ajuria Uranga alkate jaunaren lehendakaritzapean eta Itxaso Trigueros Rojo idazkariaren laguntzarekin. Alkate jaunak, quorum dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:

1.- 11.08.17KO EZOHIKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

2011ko abuztuaren 17an Udalbatzak eginiko ezohiko bilkuraren aktaren zirriborroari buruz korporazio-kideren batek esatekorik duen galdetu du alkate jaunak.

Nafarrate jaunak galdetu du, Etxauengo obraren espedienteari hasiera emateko erabakiaren inguruan, ea bertan agertzen den zenbatekoa ogasun batzordean aurkeztutakoarekin bat datorren edo ezberdina den. Honi erantzun zaio zenbateko hori kontratua esleitzeko lizitazio-tipoa dela eta, horrez gain, obraren zuzendaritza eta segurtasun eta osasun planari dagozkien zenbatekoak gehitu behar zaiela.

Aurrekoa argiturik eta akatsik nabaritu ez denez, Aramaioko Udalbatzak bertaratuko zinegotzi guztien adostasunarekin onartu du 2011ko abuztuan 17an eginiko ezohiko bilkuraren akta.

2. 4/2011 KREDITU ALDAKETA –KREDITU GEHIGARRIA- HASIERAN ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.

Udal zerbitzuen obligazioei eta Udalaren eguneroko gastuei aurre egin ahal izateko, ondoren zerrendatzen diren gastuak egiteko beharra dago. Obligazio horiei aurre egiteko



aurrekontu partidetan nahikoa krediturik edo batere krediturik ez dagoenez, 91/11 eta 99/11 Alkatetzaren Dekretuen bidez 4/2011 kreditu aldaketa espedienteari hasiera eman zaio.

Alkatetzaren Kreditu aldaketa proposamena hurrengoa da:

KONTZEPTUA	KOPURUA
Mobiliarioa	2.000 euro
Auzolanak 2011	29.955,99 euro
Obra Txikiak 2011	29.660,33 euro
PGOU Aramaio	1.013,99 euro
PERI-a idazketaren ordainsaria	49.897,95 euro
Ikas materiala (legeak berriztea)	2.000 euro
ABB dinamizatzailearen kontratua	18.000 euro + 4.939,62 euro
Berastegi baserrian lurjauziak	430,25 euro

Ekonomi Arloko Teknikariak egindako txostenarekin bat, proposamen horren nondik-norakoak hurrengoak dira:

Abuztuaren 3ko 91/11 eta 24ko 99/11 Alkate Dekretuak ikusirik, bertan proposatzen diren gastuak gauzatzea posible izan dadin, aurrekontuan nahikoa kreditu egotea ezinbesteko baldintza da. 3/2004 Arabako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko Foru Arauak 28. artikuluan adierazten dituen kreditu aldaketa posibleak kontutan hartuz, kreditu gehigarria espedientea osatzea proposatzen dut, jarraian adierazten den eran:

Aurrekontu-partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin-betikoak
01.120.625.010	MOBILIARIOA	8,06	2.000,00	2.008,00
06.444.609.000	AUZOLANAK 2011: URIBARRI AUZOAN EURI URAK JASOTZEA	0,00	29.955,99	29.955,99
06.420.622.000	OBRA TXIKIAK 2011: MUSIKA ESKOLA IZANGO DEN ERAIKINAREN FATXADA EGOKITZEA	0,00	29.660,33	29.660,33
06.432.642.000	HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA.-PGOU	15.417,71	1.013,99	16.431,70
06.432.642.001	BARNE-ERABERRITZEKO PLAN BEREZIAREN ALDAKETA (PERI) IDAZTEA	0,00	49.897,95	49.897,95
01.120.162.010	PRESTAKUNTZA	-128,23	2.000,00	1.871,77
05.710.227.990	ARAMAIO BASERRI BARRI	0,00	18.000,00	18.000,00
01.120.480.000	BERASTEGI BASERRIAN LUR JAUSIAK	0,00	430,25	430,25
GUZTIRA			132.958,51 EURO	



KREDITU GEHIGARRIAK FINANTZATZEKO PROPOSAMENA

<i>Sarreren kontzeptuak edota gastuen partidak</i>	<i>Kontzeptua</i>	<i>Sarrera handiagoak/gastueta ko bajak</i>	<i>Azalpena</i>
05.533.481.001	A.B.B. ARAMAIO BASERRI BARRI	3.600,00	BAJA
06.72003	AFA-URIBARRIKO EURI URAK JASOTZEA	25.794,02	
06.72004	AFA-MUSIKA ESKOLA IZANGO DEN ERAIKINAREN FATXADA EGOKITZEA	19.279,21	
01.87001	GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA	84.285,28	
GUZTIRA		132.958,51 EURO	

DIRUZAINZAKO GERAKIN ERABILGARRIA

Diruzaintzako gerakin likidoa 1.896.879,93

- Finantzaketa lotua duten gastuei atxikitako

diruzaintzako gerakina.....(-)1.592.765,30

Gastu orokorretarako hasierako diruzaintzako gerakina..... 304.114,63

- Onetsitako kreditu aldaketarako espedienteak finantzatzeko orain arte erabili den

diruzaintzako gerakina 1/2011.....20.000,00

3/201191.849,97

Diruzaintzako gerakin likido erabilgarria 2011-08-03an.....192.264,66

Diruzaintzako gerakin likidoa erabili da kreditu aldaketa hauek finantzatzeko:



1/2011 KREDITU GEHIGARRIA:	20.000,00	2011-03-28
3/2011 KREDITU GEHIGARRI:	91.849,97	2011-05-09
4/2011 KREDITU GEHIGARRIA	84.285,28	2011-08-03

HURRENGO KREDITU ALDAKETAK FINANTZATZEKO DIRUZAINZAKO

GERAKIN LIKIDO ERABILGARRIA

Finantzaketa lotua duten gastuetarako gerakina.....**0,00**

Gastu orokorretarako diruzaintza gerakina.....**107.979,38**

Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko 3/2004 Foru Arauaren 34 artikuluan xedatutakoaren arabera, Udalbatzari dagokio, behin osatuta, kreditu aldaketaren espedienteari hasierako onarpena ematea.

Jarraian, eztabaida zabaldu da. Iñaki Nafarrate zinegotziak hurrengo bi partiden inguruan bere kezak eta zalantzak adierazi ditu:

Aurrekontu -partida	Kontzeptua	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin- betikoak
06.432.642. 001	BARNE-ERABERRITZEKO PLAN BEREZIAREN ALDAKETA (PERI) IDAZTEA	0,00	49.897,95	49.897,95
05.710.227. 990	ARAMAIO BASERRI BARRI	0,00	18.000,00	18.000,00

Lehenengoari dagokionez, PERIaren nondik-norakoak jakitea gustatuko litzaiokela esan du, ez baitu PERIaren dokumentuak ezagutzen. Hirigintza Batzordean jorratzea proposatzen du.

Bigarrenari dagokionez, gai hori arduratzen duela esan du, momentu honetan, egoera ekonomikoa ikusita, lehentasunak ezarri behar dira, eta ez du argi ikusten langile honek egiten duena hala denik, betiere zalantzan jarri barik berak egiten duen aportazioa. Honi buruz Alkateak zera esan dio: nahiz eta partida hori aurrera eraman, txosten bat eskatu zaiola ABBko langileari, bere lanaren ezaugarriak eta edukia argitzeko; eta horren berri emango zaiola.

Ondoren, Aramaioko Udalbatzak bozketari ekin dio, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunarekin (Iñaki Nafarrate jaunak aipatutako bi partidei buruzko abstentzioa salbu) ondorengo erabakiak hartu dituelarik.

Lehena.- 4/2011 kreditu gehigarri espedientea hasieran onartzea.

Bigarrena.- Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko 3/2004 Foru-Arauaren 34. artikuluan ezarritakoarekin bat, espedientea hamabost egun baliodunetz izango da jendaurrean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote Udalbatzari.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada, 4/2011 Kreditu Gehigarriaren espedientea behin-betiko onartutzat joko da.

3. ARAMAIOKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA: ZENBAIT ALEGAZIO ERANTZUTEA.



3.1.- MODESTA ORMAETXEA IBABE

Plan orokorraren hasierako onarpenari alegazio bat egin zion. Bertan 3 Poligonoko 313 partzelan bi etxebizitzako etxea eraikitze eskubidea onartzea eskatzen zuen. Udalbatzak, 2011ko apirilaren 20an egindako bilkuran, alegazio hori baztertzea erabaki zuen. Horren ondorioz, Ormaetxea andreak berraztertze errekurtsioa ezarri zuen ekainaren 16an, epe barruan jarri ere, Udalbatzak hartutako erabaki horren kontra.

Orain aztertzen ari garen errekurtsioan jasotzen den eskaera da, aurreko alegazioan bezala, bere lursailean bi etxebizitzako etxea eraikitze eskubidea onartzea da Horretarako, bere baserria 1800 urtetik zutik zegoela azaltzen du, inguran eraikin berri asko egin direla eta partzelak azpiegiturak dituela agudiatzen du.

Ikusirik, Udal arkitekto aholkulariak kontrako txostena igorri duela, ondoko arrazoiketarekin:

“ (...)

Aipatutako lursaila, lurzoru ez urbanizagarrian kokatuta dago. Bertan, etxebizitza bat egiteko, derrigorrez nekazal ustiapen bati lotuta egon behar du. Ez da Udalak ezartzen duen baldintza, Euskal Erkidego mailan dagoen 2/0006 Euskadiko Lurzoru eta Hirigintza Legeak ezarri egiten du. Udalak ez dauka lursail mota horietan etxebizitzak eraikitze baimenak emateko eskumenik.

Nekazal ustiapen bati loturik ez badago, ezin da lurzoru ez urbanizagarrian etxebizitzarik eraiki.

(...)”.

Jarraian Udalbatzak, udal arkitekto aholkulariaren txostenarekin bat etorriz, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunarekin ondorengo erabaki du:

Lehena.- Modesta Ormaetxea andreak, Udalbatzaren 2011ko apirilaren 20ko erabakiaren kontra ezarritako berraztertze errekurtsioa gaitzestea.

Bigarrena.- Erabaki hau Modesta Ormaetxeari jakinaraztea.

3.2.- LUIS VICINAY DE LA TAJADA

Mahaiaren gainean gelditu da.

4.- OILOGOR EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEA: ARAMAIOKO EHIZA-KOTOKO BI POSTU LAGATZEA.

Mendi batzordeak aurkeztutako diktamena zera dio:

AURREKARIAK

- *Udalak uso pase postu bi dauzka Kruzetan eta San Kristobalean, oso leku onean (elbarri bat ere joateko posibilitadekin).*
- *Orain arte eskatzaileen edota udalaren konpromisuaren arabera eskaintzen ziren.*

Hori dela eta, Mendi Batzordeak ondorengo proposamena egiten du:



ERABAKIA:

Aramaioko kotoaren juntari udaletxeko bi uso pase postuaren kudeatzeko baimena ematea, herriarekin lotura daukan pertsonen artean eta kotoaren juntari hango inguruak garbiak eukitzeko konpromisua eskatzea.

Udalak konpromisu bat baldin badauka, bi lanegun lehenago Juntan abisatuko du, eskatutako eguna eta ordua uso pase postua erabiltzeko aukera izango du.

Baldintza hauek urtero berrikusiko dira.

Hau burutu ahal izateko beharrezkoa ikusten da zerbitzu hori arautzen duen ordenantza egitea.

Horrexegatik udal zerbitzu teknikoari gai honi buruz hartu behar diren neurrien txostena eskatzea.

Ondoren, Aramaioko Udalbatzak bozketari ekin dio, bertaratutako zinegotzi guztien adostasunarekin ondorengo erabakiak hartu dituelarik:

Lehena.- Aramaioko Oilogor elkarteari bi uso pase-postu kudeatzeko baimena ematea.

Bigarrena.- Erabaki hau Oilogor erakundeari jakinaraztea.

Ekonomia arloko teknikariak gaurtik urte bukaera arte diruzaintzaren aurreikuspenaren berri eman du era laburrean Alkate jaunak eta idazkari andereak hala eskatuta.

Behar bezala garatutako txosten ekonomiko-finantzarioa aurkeztea ezinezkoa izan denez denborarik ez duelako izan, teknikariak ondorengo azalpena eman du Udal diruzaintzaren egoera kritikoa dela jakinarazteko eta gastuari begira prudentziaz jokatzeko aholkatzeko.

2011.urtean zehar udalak egin dituen ordainketen batuz bestekoa kalkulatu eta hileroko 200.000 eurotako gastua jasan duela adierazi du. Urtea amaitzeko 4 hilabete falta direla kontuan izanik gastua 800.000 eurotako aurreikusitua da. Bestalde, jasoko diren dirusarrerak (IBI 325.000, AAB enpresaren ekarpena 40.000, FFFEL-a 195.000 eta Hiltegiko obraren dirulaguntza 62.800+80.000) 702.800 eurotan kalkulatu dira. Honela 97.200 eurotako defizita, 24.300 eurotako hileroko, agerian jartzen da. Honek esan nahi du Udalak, epe motzera, likidezia arazoak izango dituela gastua kontrolatzen ez badu eta prudentziaz jokatzeko ez badu.

Ekonomia arloko teknikariak datozen egunetan, datu zehatzagoetan oinarritutako txosten ekonomiko-finantzarioa garatuko du eta Alkateari aurkeztuko dio.

Honekin eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, eguerdiko 13:40 direnean, alkate jaunaren sinadurarekin hemen jasotzen den bilkurari amaiera eman diogu.